

noaia

Usurbilgo Gida
aurkeztu da

Emakume baserritarren
errealitatea aztergai


Gure Pakeako txapelketak
hastear dira

Musikaz blai dator

Inauteri Jaia 2013

**%50KO BEHERAPENA
HAUR JANTZIETAN!!**

**10€, 15€ ETA 20€-TARA
DAUDEN ARTIKULUAK!!**



Pausoka
HAUR DENDA

KALE MAGUSIA 10 BEAIA, USURBIL

Sarreraren salmenta

bastero
KULTURGUNEA

Clownic
(Trickleren bigarren taldea)

TICKET



OTSAILAK 15, ostirala - 21:30

 **ANDOAINGO UDALA**  **Gipuzkoako Foru Aldundia**  **kutxa**

Info: 943.303.540
www.andoain.org

San Balentin eguna

**URTINEA
LORATEGIA**



Loreekin, asmatuko duzu!





Egun osoa irekia • San Esteban auzoa • 943 362 255 • Faxa: 943 366 054 • urtinea@urtinea.com

Albisteak iruditan

Usurbil Futbol Taldearen ekimenez, martxan da bazkideen arteko lehen jokoa

Usurbil FT-ko bazkideen arteko lehen jokoa ospatu da iragan asteburuan. Prefereente mailako mutilen taldearen neurketa atsedenaldia zela, aurretik eginiko zozketa bidez erabakita, bi bazkideek jolas batean parte hartu zuten; Endika Ulik eta Guillermo Rueda hain zuzen. Jolasa Ulik irabazi zuen. Usurbil FT-tik bazkideetza egiteko aukera dutela gogorarazi nahi diete herritarrei. Asteburuetan, neurketak daudenean Haranera gerturatuta edo Rural Kutxan. Horra aukera bikoitza: taldea lagunduz, jolas atsegin baten bidez zozketa ezberdinetan parte hartzeko aukera.



Aurreko asteburuan egin zen bazkideen arteko lehen jokoa. Argazkian dira bi protagonistak: Endika Uli eta Guillermo Rueda.

Laburrean

Otsailaren 16an, Korrikaren aldeko gin-kana

18. Korrikaren baitan, "Lekukoaren bila" gin-kana antolatu da. Kanporaketak otsailaren hasiko dira eta Usurbil-Lasarte eskualdeko otsailaren 16an egingo da Usurbilen, arratsaldeko 17:00etan. Bertan sei taldek parte hartuko dute eta herrian zehar proba desberdinak egingo dituzte.

Kinto afaria 1956an jaioetakoentzat

Otsailaren 23an larunbatez, 1956. urtean jaioetakoentzako kinto afaria antolatu dute. Izen ematea irekita egongo da hilaren 20ra arte. Telefono zenbaki hauetara deitu behar da, aldeztu aurretik: 627 709 657 (Mari Kruz) edo 943 370 265 (Inaxio).

Ogia egiteko ikastaro berri bat

Usurbiltzenek ogia egiteko ikastaroa antolatu du otsailaren 23rako. Larunbat goiz horretan eskainiko dute saioa, 9:30-14:00 artean, Agerialdeko jangelan. Parte hartzaileek izena aldeztu aurretik eman beharko dute, usurbiltzen@gmail.com helbidean. Prezioa, 30 euro.

noqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noqua.com /// www.noqua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Arantxa Zulaika,
publizitatea@noqua.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noqua.com:
Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,
Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Lurdes
Kamino.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Aina

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Lurralde prebista



Lurralde Herraia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Unai Agirre

Estatua behar dugu

Egun batzuk dira Hendaia-ko ikastolaren diru-laguntza publikoen afera ezagutu dugunetik. Egia esan, legea, ziur aski Baionako subprefektaren alde egongo da, nola ez, legea estatuaren interesen alde, nahiz eta honek zuzentasunarekin zerikusia duen. Usurbilgo jendea ere Hendaian ospatu zen manifestazioan ikusi nuen, Hendaia-ko ikastolarena bertako arazoa bakarrik ez den seinale argia. Gaia buruan bueltaka nuela, beste egoera bat etorri zitzaidan burura, ez ordea dagoen egoera txarragatik, markatzen duen tendentziagatik bai-

zik. Zubietako eskola txikian, duela 6 urte ez nuen haurrik entzuten gazteleraz, orain berriz haur batzuk hasiak daude haien arteko komunikazioan euskara baztertzen. Eta hau bat dator soziolinguistika klusterrak plazaratzen dituen txostenen inguruan; euskararen ezagutza gutxinaka gogotzen den heinean, haren erabilera ez dela handitu. Bide honetan Joxean Artzek argitu zigun balizko etorkizuna, haren esaldi eza-gunarekin, "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik".

Historiari begiratuta nabarmentzen zait Frantziar iraultza ostean zegoen panorama linguistikoa. Garai horretan, euskarak frantsesak baino hiztun gehiago omen zituen, azken hau Paris ingurura mugatzen zelarik, baina erabaki politiko bat hartu zuten: Pariseko hizkuntza hura Frantziar estatuko hizkuntza izan behar zuela. Eta segituan lortu zuten.

Hegoaldean berriz, berandua-gokoak diren pasarteetan, irakurritu dut nola II. Karlistadan, atzo bertan, liberalak gipuzkoarrekin hitz egiteko, itzultzaileak behar

zituzten. Hemen ere, segituan lortu zuten "arazo" hori "konpon-tzea".

Ni ez naiz independentista, euskalduna naiz, ez espainiar ezta frantsesa ere. Baina gorputzak eta bihotzak, herriak eta hizkuntzak, gaur egun, ezinbestekoa dute independentzia.

PP gainbeheran, ustelkeriak jota, Katalunian eta Eskozian beren etorkizuna erabakitze bidean... Garai polita dugu bideari ekiteko. Txillardegik iragarri zuen moduan "Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; baina estaturik gabe, ziur ezetz".

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | **Unai Agirre** | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre

Ika-Mika

Se(h)askaren mintzoa

Sehaskatik jaso dugu gure hizkuntza, geure kasuan euskara, eta kalera zabaltzeko aukera ere izan dugu. Entzuten bada horregatik izan da hein handi batean. Iparraldean ere urte

askotan halaxe suertatu da baina gaur egun entzun nahi baldin bada Seaska behar du, hau da, ikastolaren sarea.

Azken asteotan etorri zaien ekaitzaren ondoren, sehaskarik

gabe gelditzeko arriskua dute eta euskaldun garenok badugu zeregina sehaska pipiak jo ez dezan.

Uneoro euskara entzunaraztea da oihartzunik eraginkorrena haurren babeslekuak sosak izan ditzan.

Honela, behar duen sehaska izango du ipuinak entzunaz lo lasai eta gozo egiteko.

Iñaki Agirresarobe Arzallus

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: otsailak 15. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 11.

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Javier Orbegoza
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
943 37 29 37
Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL

Usurbil, "Frackingetik aske dagoen udalerria"



Aurreko astean aztertu zen gai hau udaletxean.

Itaya Gazte Asanbladak, Fracking Ez Araba Plataformarekin batera aurkezturiko mozioa aztertu eta bozkatu zuen udalbatzak, urtarilaren 29ko osoko ohiko bilkuran. "Fracking" edo apurketa hidraulikoa ikertzeko abian dauden baimenen eteteari buruzko testua zen. Udalari, udalerrri hau "barne hartuko lukeen inongo lkerketa Baimenik ez ematea" eskatzen du mozioak. Eta horrekin batera, Usurbil "Frackingetik aske dagoen Udalerria" izendatzea eta udalerrri sarreran, "Fracking ez" dioen kartela jartzea.

Orain arte erabakitakoa martxan jartzeko eman beharreko pausoak zehaztu eta landuko dira bertan.

BALORAZIOAK

Udalbatzak gehiengo osoz onartu zuen Itayak aurkezturiko testua. Mozioaren alde bozkatu zuten Bildu, Aralar eta EAJ-PNV-k. "Fracking" delakoaren aurka egiteko beharra nabarmendu zuen gobernu taldetik Jose Maria Rivadeneyra ingurumen alorreko zinegotziak, hemen halakorik gertatuko balitz, ustiapen horretako etekina kanpora joango dela, "ez dela bertan geratuko" ohartaraziz. "Usurbil beti galtzaile" aterako litzatekeela zioen.

ZALANTZAK, SEINALEAREKIN

Aralarretik ere fracking-aren aurka mintzatu zen Joxe Ramon Furundarena bo-

zeramailea. "Ados gaude kalteak eragiten dituela", zioen. Aldiz, zalantzakor agertu zen udalerrri sarreran seinale bat jartzearen inguruan. Horren aurrean, Mertxe Aizpurua alkateak, mozioko gainerako edukiarekin bezala, seinalea jartzearekin ere gobernu taldeak bat egiten zuela adierazi zuen. Bere esanetan, udalerrri sarreran halakorik jartzea "sentsibilizatzeko modu bat da". Udaletxe barruan onarturiko testua, "lau hormen artean" geratu ordez, hartutako erabakia ikusgarri egiteko modu bat.

"EZ DITUGU GURE KABUZ BEHAR ENERGETIKOAK SORTZEN"

PSE-EE eta Hamaikabatek abstentziora jo zuten. Luis Mari Ormaetxeak euren bozka mozioak jasotzen duen teknikari lotuta ez zutela emango iragarri zuen. Mahai gaineen, bere ikuspegitik gai honen azpian dagoena jarri nahi izan zuen. "Ez ditugu behar energetikoak gure kabuz sortzen", kanpotik ekarri beharra dagoela gogorarazi zuen. "Gogoeta horren ondorio bezala gustatuko litzazuke gure bozka ulertzea", adierazi zuen.

Ildo beretik, udal eraikinak ere energetikoki "autosufizienteak" ez direla gogorarazi zuen, azken aldiaren eraiki diren udal eraikin berrietarako aipatu "variable" hau ez zela bere garaian kontuan hartu. Horregatik, gai honetan sakontzea eskatu zuen.

Herri bideen inbentarioaren eguneratzea

Aurretik zegoen akats bat zuzendu eta bide berriak jasotzeko, herri bideen inbentarioa eguneratuko du Udalak, urtarilaren 29ko osoko ohiko bilkuran udalbatzaren gehiengo osoaren babesas jaso ostean. Udal talde guztiak bi bide berri jasoko dituen inbentarioaren alde agertu ziren, Hamaikabat izan ezik, abstentitu baitziren.

Agerreazpiko eremua

Aipatu moduan, aurrerantzean azken hilabeteotan mintzagai izan ditugun bi bide berri jasoko ditu herri inbentarioak. Batetik, Aginagako erriberako bidea. "Duela gutxi bukatu ziren bertako lanak", gogorarazi zuen azken osoko bilkuran, Mertxe Aizpurua alkateak. Eta bestalde, Agerreazpi eremuan eraiki diren babes ofizialeko etxebizitzaren ondoan sortu den kale berria ere, Olarriondo kalea, inbentarioan jaso geratuko da baita.

Honekin batera, herritar batek aurkezturiko alegazioa aintzat hartuz, herri bideen inbentarioko planoan huts egite bat antzeman du Udalak eta zuzenketa hau txertatzea ere azken osoko ohiko bilkuran onartu zen.

Irisasi BTT taldearen eskertza

Ohar baten bitartez, Irisasi BTT taldearen izenean eskerrak eman nahi zaizkie martxa antolatzen lagundu zuten guztiei: "Esker anitz Usurbilgo Udalari eta brigadako langile guztiei. Eskerrak baita ere Kiroldegiko instalakuntzak erabiltzeko aukera emateagatik.

Eskerrak baita ere, bai diruz edo bai hamaiketako, opari eta hainbat gauzeekin lagundu diguzuen guztioi. Eta nola ez, ezin ahaztu martxako egunean bai bidegurutzeetan egon zinetenoi, baita argazkiak ateratzen edota txirindulak animatzen egon zineten guztioi. Mila esker Hurbilago elkarteari eta herriko dendari eta tabernari guztiei. Mila esker Andatza Mendizale elkartearen kideei eskainitako laguntza guztiagatik. Eta azkenik mila esker NOAUA!ri Usurbilen gure izanaren berri emateagatik".

Kaleko istorioak iPhone bat

Kalekumeak argazki erakusketa zabalduko du Ion Markelek Donostian


A skok, 365 *aztarna* izeneko proiektuarekin ezagutu genuen Ion Markel Saez de Urabain Iparragirre argazkilaria. Iphone telefono mugikorra baliatuz, egunero auto-erretratu bat egin zuen, horrela urtebetez. 2010eko ekainean osatu zuen argazki bilduma. Aste honetan ordea, *Kalekumeak* izeneko erakusketa zabalduko du Donostiako Okendo Kultur Etxean. Prentsa oharrean ondo laburtua ikusi dugu erakusketaren gakoa: “Argazkia momentua da berarentzat. Uneen bila ehizan aritzen da iPhone-a eskuan”. *Street photography* delako korrontean oinarrituz, 32 argazki jaso ditu Okendo Kultur Etxean. Martxoaren 22ra arte egongo da zabalik.

“Kaleak milaka istorio kontatzen dizkigu egunero. Iphone-aren bat-batekotasunaz baliatuz, horietako batzuk lapurtu dizkio argazkilaria. Antzeko azalpena eta xehetasun gehiago eskaini dizkigu elkarrizketa honetan Ion Markelek.

365 aztarna egitasmoaren ondoren, hau da zure lehen erakusketa, ezta?

Ion Markel. Hau da egiten dudana lehen erakusketa, fisikoa behintzat bai. Orain arte argazki hauek sare sozialetan egon dira. Baina hau da antolatzen dudana lehen erakusketa.

365 aztarna sarean dago ikusgai (liburu bezala ere eman zuen argitara). Hura bezala, erakusketa hau iPhone eskuako telefonoa erabiliz osatu duzu. Okendoko argazkien



Ostiral honetan irekiko da erakusketa Okendo Kultur Etxean, Donostian. Tartean izango da argazki hau.

ION MARKEL

“Kaleko argazki hauetan ez nago ni. Eta ez dago inor posatzen. Argazki denak dira lapurtutako momentuak”

bereizgarri nagusia zein da?

Niri asko gustatu izan zait beti street photography izeneko argazkilaritza, kaleko argazkilaritza. Telefonoa beti eskura dugu, eta erraztasun handiak ematen dizkizu ezkutatuta pasatzeko. Kamara handi batek beti atentzio gehiago deitzen du baina telefono batek ez. Iru-di horiek lapurtzeko, jendea konturatu gabe lapurtzeko, telefonoaz baliatzen naiz.

Kalekumeak izeneko honetan, beraz, ez duzu auto-erretratuaren ildotik jarraitu.

Kaleko argazki hauetan ez nago ni. Eta ez dago inor posatzen. Argazki denak dira lapurtutako momentuak.

Eta txuribeltzean daude denak.

Argazki denak koloretan ateratu nituen. Baina momentuan bertan, argazkia ateratu eta editatu egiten nituen telefonoan. Zuri beltzeko argazkiak gustatzen zaizkit.

Argazkiak mobilean bertan tratatu dituzu. Iphone-arekin eginikoak dira beraz, hasieratik bukaerara.

Bai, hala da.

Eta tamaina aldetik, erakusketarako bereziki egokitu al dituzu?

Telefonoarekin ateratu nituen, ez nuen erakusketa argazki handi batzuekin osatu nahi. Tamaina handian ondo geratzen dira, kalitate aldetik ez dago arazorik zerren azken iPhone modeloen erresoluzioa nahiko handia da. Baina erakusketan 25x25 neurrian ipiniko ditut argazkiak.

Margogintzan bereziki, era-

kutsitako hori saltzeko aitzakia izaten dira erakusketak. Helburu hori ere baduzu zuk? Nire asmo nagusia argazkiak erakustea da. Norbait baten bat erosi nahi badu, ni prest nago.

Baina ez da helburua hori.

Beti eduki dut argazkiak fisikoki erakusteko gogoia. Helburua beraz hori da. Erakustea.

Kalekumeak erakusketa

- **Argazkilaria:** Ion Markel Saez de Urabain Iparragirre.
- **Non:** Okendo Kultur Etxea, Aretto Zaharra. Nafarroa etorbidea, 7 - Donostia.
- **Egunak:** Otsaila 8 - Martxo 22, Asteleheneretik ostiralera.
- **Bisita orduak:** 10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:30.
- **Web:** www.ionmarkel.com
- **iPhonekeriak:** www.flickr.com/photos/iphonekeriak/

tekin erretratatzuz

Street photography korronteari jarraitzen dion erakusketa da hau. Donostian paratu duzun aldetik, Donostia al da argazki hauetako paisaia nagusia?

Ion Markel. Argazki gehienak Donostian ateratakoak dira, bai. Gertuen dudana hiririk handiena da. Eta hiriko bizitza islatzea gustatzen zait. Baina badira Bilbo, Madril eta Bartzelonako argazkiak ere.

Zentzu horretan, koadro bakoitzeko argazkia zein hiritakoa den zehazten al da?

Ez, ez dut hori egin nahi izan. Bakoitzak ubikatu dezala nahi duen hirian. Kontatzen dudana istorioa edozein hiritan gerta daitekeelako, azken batean. Dena den, zaila da, zeren azken batean guk ohitura batzuk ditugu hemen. Argazki batzuetan koadrila tipikoa agertzen da, txikiteroak beste batean...

Donostian egongo da hilabete eta erdiz erakusketa ikusgai. Sutegin ipintzeko asmorik ba al duzu?

Izan daiteke eta hitz egiten ibili gara. Goierri aldekoa naiz berez eta hara eramateko gogoia ere badut. Baina ez



Argazki bakoitzean "kontatzen dudana istorioa edozein hiritan gerta daiteke", adierazi digu Ion Markelek.

dut asko mugitu nahi. Bi edo hiru lekutan egin eta listo. Politena litzateke jendea Okendora mugitzea.

Beste egitasmorik ba al duzu buruan?

Lanbide bezala hartu dut argazkilaritza. Web orri bat

ireki dut (ionmarkel.com) eta gehien bat familia argazkilaritza landu nahi dut. Argazki soziala, gehien bat.

"Argazkia momentua da"

Lazkaon jaio zen baina gaur egun Usurbilen bizi da. Autodidakta. Argazkilaritzako arlo ezberdinak landu ditu (bi-daiak, paisaia, natura...) baina gaur egun erretratuak, erreportaje sozialak eta argazkilaritza dokumentalean biltzen du bere sortze-lana. Gizakiaren presentzia, azken batean.

UNEEN EHIZAN

Ion Markel argazkilarientzat, gure gaurko solaskidearentzat, "argazkia momentua da". Uneen bila ehizan aritzen da kamera edo iPhone-a eskuan duela. Begien aurretik duenetik abiatu eta bere kontakizun propioa egiten du irudien bidez. Egunerokoak erakartzen du bere arreata. Ohiko

eszena arruntengan jartzen du fokua. Besteok ohikoa ikusten dugun tokian, istorioa kontatzen du argazkien bidez.

IPHONEKERIAK

Azken lau urtetan Apple etxearen iPhone modelo ezberdinak izan ditu bidelagun eta bere lan zati handienetakoa iPhoneo-

graphy (edo Ion Markelek berak deitzen dion bezala, iPhonekeriak) delakoan garatu du.

Egun, Euskal Herrian argazkilaritza modu honetan espezializatu den argazkilarietako bat dela esan dezakegu. "Edozein unetan sortu daiteke argazki perfektua, eta hori dela eta, eskura izan ohi dut beti".

Emakume baserritarren errealitatea aztertzeke tenorea

Beka deialdi berri batean parte hartzeko epea ireki du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak. Usurbilgo emakume baserritarrek bizi izandako errealitatea aztertu beharko dute egitasmo honekiko interesa dutenek. "Usurbilgo emakume baserritarren inguruko historia jaso, landu eta herritarrei transmititzea" da helburua, deialdiko oinarriek jasotzen dutenez.



Epaimahai batek hautatuko du beka nori eman.

Ikuspuntu desberdinetatik landu beharko da gaia; historia, ekonomia, antropologia, soziologia, giza zientziak, filosofia... Deialdi honetan interesa dutenek, otsailaren 26ra arteko epea dute euren proiektua aurkezteko. Epaimahai batek hautatuko du, beka nori eman.

NORBANAKO EDO TALDEEI ZUZENDUA

Deialdi honen zergatia, oinarrietan jaso du Udalak: "Historian zehar nabarmena izan da oro har, emakumeen ikusgaitasun sozialaren defizita. Izan ere, gutxitan jaso izan dira emakumeek gizartearen, ekonomiaren edota politikan egindako ekarpenak eta horrenbestez balioetsiak izan dira. Hori dela eta, garrantzitsua da, emakumeek izan duten papera ikusaraztea eta jendeari egindako ekarpenak ezagutzera ematea".

Beka deialdi honetan parte

AURKEZTEKO EPEA
Otsailaren 26an
amaituko da. 10.000
euro izango dira beka
jasotzen duenarentzat

hartzeko zenbait baldintza bete beharko dira. Batetik, erdi mailako edo goi mailako Unibertsitateko titulua eta EGA edo baliokidea izatea. Honez gain, "ezingo dute beka jaso Usurbilgo Udalarekin edo haren mendeko erakunde autonomoekin nahiz entitateekin dituzten zorreatatik behartze bidez ordainarazitako hasitako prozeduretan daudenek, ezta ere Udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu edo kitatzen dituzten arte".

Norbanako edo taldeak aurkeztu daitezke beka deialdi honetara. Taldean aurkeztuz gero, talde kide guztiek aipatu

baldintza guztiak bete beharko dituzte. Eta taldeko arduraduna izendatu beharko da. "Haren ezaugarriak baloratuko dira eta hark izango du lanarekin zerikusia duen guztirako arduragusia", diote deialdiko oinarriek.

Azterketaren jarraipena egiteko, tutoretza ordu batzuk zehaztuko ditu Udalak. Lanek argitaragabeak izan beharko dute. Bekaren kopurua 10.000 eurotako izango da. Hiru zatitan ordainduko da; "%40a proiektua hautatutakoan, %30a sei hilabete igaro ondoren, txosten bat entregatu eta gero, eta %30a ikerketa aurkeztu eta epaimahaiak bere oniritzia ematen duenean". Epaimahaia, alkateak eta parekidetasun alorreko zinegotziak edo eurek hautatutako ordezkari banak, udal parekidetasun alorreko teknikariak, eta Historian eta ikerketa feministan adituak direnek osatuko dute.

Xehetasun gehiago Udaletxean eskura daitezke

Ikerketa lana eta emaitza euskaraz aurkeztu beharko da, baita beka deialdi honetan parte hartzeko dokumentazioa ere. Eskaerak, Usurbilgo Udaleko erregistroan aurkeztu behar dira, otsailaren 26ko arratsaldeko 14:00ak baino lehen. Edo bestela helbide honetara bidali: Usurbilgo Udala, Joxe Martin Sagardia Plaza z/g, 20170 Usurbil.

Dokumentazioguztia, "Usurbilgo emakume baserritarrek bizi izan duen errealitatearen azterketa" dioen gutunazal batean sartuta utzi beharko da bertan. Barruan, lan proiektua sartu beharko da, "bertan jasoko direlarik izenburua, ikergaia zehaztuta, ikergaiaren testuinguru teorikoa, helburuak, metodologia, kronograma, erabiliko diren baliabideak eta bibliografia. Lan proiektuak 15 orrialde izango ditu gehienez. Proiektuaren bi kopia aurkeztuko dira paperean, eta beste bat euskarri digitalean".

Beka deialdi honi buruzko informazio gehiago Usurbilgo Udalaren atarian, usurbil.net web orrialdean duzue. Bertan jaso daitezke deialdiko oinarrien berri, baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu duten iragarkia eskuratuta ere.



Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

TAXI
24 h
USURBIL
677 37 34 66 Joxe
943 36 21 78 Etxabe

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noa.com

LAUKOTE
okindegia
kafeteria
LAUKOTE
Puntapax 16, behe 943 360 980

Usurbilgo berri, gida praktiko batean

Herriarrek eta turistek Usurbil hobeto ezagutzeko aukera izango dute aurrerantzean. Horretan lagungarri suertatuko zaien gida kalean da jada. Eta eskuragarri bai bertakoentzat, baita Usurbil ezagutu asmo dutenentzat ere.

Usurbilgo turismoa eta merkataritza alorak lotzen dituen gida aurkeztu zuten astelehen eguerdian Potxoenean. Jada kalean dagoen lan honi buruzko zehaztasunak ematen aritu ziren Alaitz Aizpurua, Ana Perez eta Juanjo Allur, Usurbilgo Udalaren, Hurbilago Elkartearen eta Siadeco Ikerketa Elkartearen izenean. Hiru eragileon elkarlaren emaitza baita gida berria. Proiektuak Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza jaso du.

"BISITARIAK ERAKARRI"

Siadecoren eskutik Usurbilgo Udalak herriko merkataritza indaberritzeko 2009an gauzatatutako plan berezian du jatorria aste hasieran aurkezturiko egitasmoak. Plan horren baitan hain zuzen, 4 urtetarako ekintza plana zehaztu zen, zenbait helburrekin; besteak beste, prentsaurrekoan berri eman zutenez, "baliabide turistiko eta kulturaleri balioa eman eta kanpoko bisitariak erakartzeko".

HURBILAGOK ETA UDALAK, ELKARLANEAN

Ordutik hona hainbat egitasmo bideratu dituzte Hurbilagok eta Udalak; Mikel Laboa plazako urbanizazio lanak, Hurbilagoren fidelizazio txartela, merkataritza erabilerarako aparkaleku plaza rotatorioak... Eta iaz, "Usurbilgo baliabide turistikoak balioan jartzeko erakusleahoaren proiektua diseinatu zen eta bertan mota honetako gida baten beharra identifikatu zen". Otsailaren 4an aurkeztu zutena hain zuzen.



Udala, Hurbilago zein Siadecoko ordezkariak, gidaren aurkezpenean.

10.000 ALE

"Baliabide turistiko eta kulturaleri balioa eman nahi zaie gida honekin"

HERRI BIZITZAREN ALDEKO APUSTUA

Gida berriarekin Udaletik nabarmetzen dutenez, argi gertatzen da, "Usurbilgo herriaren erakusleho zabal berria da. Usurbildarrok abegitsu hartzen ditugu eta hartuko ditugu ere aurrerantzean gure herrira hurbilduko diren bisitariak. Argi erakusten du gida honek, gainera, herrian bertan egin ditzakegula erosketak".

Udalak ezinbestekotzat jo du egitasmo honetan parte hartzea, "herri bizitzaren aldeko apustu garbia" egiten baitu, herriko taberna eta saltokien aldeko apustua. Udalaren esanetan, euren helburuetako bat "herriko baliabideak erabili eta bultzatzea da". Eta horretara gonbidatzen ditu herritarak. Gida hau eskutan hartu eta herriko baliabideak erabiltzera hain zuzen.

UDALERRIKO POTENTZIALITASUNA BALIATU BEHAR DA

Juanjo Allurrek garrantzitsutzat jotzen zuen bestalde, usurbildarrak herrian bertan dutenaz

jabetzea lehenik, eta "daukaguna erakustera ematera", gero. Zentzu horretan, gida erakusleho baten moduan definitu zuen.

ESKURAGARRI JADA

Usurbilgo gida kalean da. 10.000 ale argitaratu dituzte. Usurbilen Hurbilago Elkarteko kide diren establezimenduetan eskuratu ahal izango da, baita udal eraikin desberdinetan ere, edota NOAUA'n. Halere, udalerrikanpo, beste zenbait lekutan ere banatuko dute; Buntzaldean, Donostialdean edota Urola Kostan. Gida sarean ere lortu ahal izango da; Usurbilgo Udalaren usurbil.net web orrialdean. Gidaren atzealdean dagoen QR kodeak ere kontsultarako aukera ematen du.

USURBILGO BERRI IZATEKO EUSKARRIA

Gidak udalerriko mapa bat du, kaleen izenekin. Bertan zenbaki eta kolore desberdinez identifikatuak ageri dira, udalerrian bisita daitezkeen monumentu eta bestelako interes guneak batetik, eta bestetik, udalerriko hainbat establezimenduren kokagunea. Aipatu maparekin batera, Usurbilek eskaintzen dituen interesgune eta establezimendu horien guztien gaineko informazioa eskaintzen da. Establezimenduen kasuan, argaz-

ki bat, izena, eta helbide, telefono zenbaki edota posta elektronikoa. Eta horrekin batera, establezimendu bakoitzaren eskaintza eta historia ere jasotzen ditu gidak. Baita establezimenduen guztion zerrenda bat ere.

Udalerriko monumentu eta interes guneen dagokien ere, beste hainbeste. Guztion kokagunea edota historiaren berri ematen da. Hau guztia osatzeko, urtean zehar herrian ospatzen diren hainbat ekitaldi, jai edota kirol proben egutegi bat ere txertatu dute gidan. Eta azalean, irudi bat. Usurbilgo establezimenduek eskaintzen dituzten produktuen marrazkiekin ageri den errotarri bat. "Dabilen harriari, goroldiorik ez", dio esaera zaharrak; eta beraz, aurrerantzean, herriko merkataritzaren eta turismoaren 'errotarriari' eragitea izango da, beharbada, gakoa. Argitalpen xume honek eginkizun horretan lagunduko duelakoan gaude", adierazi zuten asteleheneko aurkezpen ekitaldian.

668, azken Tipi-Tapako zenbaki saritua

Ezkur-urdaiazpikoz eginiko pintxo bereziak dastatzeko aukera izan zuten igandean, Bordatxo, Aitzaga, Txiriboga, Artzabal eta Txapeldun tabernetara gerturatu zirenek. Hurbilago Elkartek antolaturiko III. Tipi-Tapa ibilbide gastronomikoaren baitan hain zuzen. Antolatzaileek otsailaren 3an izandako parte hartzea azpimarratu dute. Jende asko eta giro ederra izan zen. Egun berean gainera, Hurbilagoko establezimenduetan xahutu beharreko 300 euroko erosketa balea zozketa zuten Artzabalen. Zenbaki saritua, 668 izan da. Astekari hau inprentara bidaltzerakoan, herritar saritua ez zen oraindik agertu.

Larunbateko Inauteri Festa girotzen lehenak izango dira Zumartxanekin, musika festara

Zumarte Musika Eskolatik pasatako ikasleak dira Zumartxan txaranga osatzen dutenak. Beste behin ere, gazte hauek izango dira Inauterietako doinuekin kaleak girotzen arituko direnak larunbat honetan.

Larunbatean ospatuko den Inauteri Festa girotzen hasten lehenak izango dira Zumartxan gazteen txarangako kideak. Zumarte Musika Eskolako taldea, Kale Nagusiko euren egoitzatik abiatu eta Kaxko inguruan dabiltzanak dantzan jarriko ditu. Herritarrek mozturrotu eta kalera ateratzera animatzen dituzte, Ander Mangas eta Aroa Etxeburua Zumartxaneko kideetako bik. Larunbat eguerdiko 12:30etatik aurrera parranda giroa ziurtatua dago Usurbilen. Aurten ez ahaztu, Inauteri Festa egunez ospatzeko apustua egin da.



Larunbat honetan, eguerdiko 12:30ean abiatuko dira Zumarte Musika Eskolatik.

Zumartxan taldeak Zumarten du sorrera.

Ander Mangas. Hori da, duela lau bat urte hasiko ginen. Betiko ikasleak gara. Lehen banda bat egon zen. Hor ibili ginen batzuen artean, txaranga-ko ideia atera zen eta txaranga sortu zen Zumarteren eskutik. Deitu ziguten eta txarangan jotzen hasi ginen.

Nola oroitzen duzue Zumartxan hasiera?

A. M. Pixkanaka entseatzen hasi ginen, kanta batzuk atera ziren. Lehenengo urtean jada inauterietan eta Sagardo Egunean jo genuen. Orduetik aurrera, kantak sartzen eta jotzen joan gara.

Eta lehen emanaldia, nola bizi izan zenuten?

A. M. Txikitatik egon gara jotzen, txarangan ez, baina bai bandan Zumarteko festa egunetan. Guretzat beste egun bat gehiago izan zen, txarangarekin baina beste egun bat gehiago. Gainera Trintxerpeko

AROA ETXEBURUA

“Txaranga batek beti dantzan jartzen du jendea. Mugitzen behintzat, gustura egoten dira”

txaranga baten laguntza izan genuen.

Aroa Etxeburua. Ez zegoen jende nahikoa, Zumarteko kide gutxi zeuden eta orduan Trintxerpekoak etortzen ziren gurekin jotzera, taldea osatzeko. Bestela, gutxiegi ginen.

A. M. Haritz ibiltzen zen irakasle moduan hemen eta Trintxerpen. Berak lortu zuen, bere bidez etortzen ziren Trintxerpekoak.

Inauterietan eskaini duzue emanaldia, Sagardo Egunean...

A. E. Usurbilgo festetan.

A. M. Santuenean ere bi urtez jotzen. Kilometroetan Lezon ere jo genuen. Haritz zebilen bertan antolatzen. Bidebieta-

ko festetan ere aritu gara.

Txaranga kalea girotzea du helburu nagusi. Animazio lan hori egitea erraza suertatu izan zaizue?

A. E. Inauterietan errazagoa da, jendea festa giroan dago. Usurbilgo festetan aldiz, eguerdi edo arratsalde partean jendea nahiko lasai dago. Txaranga taldeei ez zaie egiten halako jarraipenik leku batetik besterako ibilbidea egitean. Baina jendea, dagoen tokian gustura entzuten du txaranga.

A. M. Sagardo Egunean ere ondo erantzun izan du jendeak. Txaranga batek beti dantzan jartzen du jendea. Mugitzen behintzat, gustura egoten da jendea. Eta gu ere bai. Taberna inguruetan jotzen dugunean batez ere, jendea taberna inguruetan egon eta orduan animatzen da batez ere. Baina kalejiran baino txaranga batek taberna inguruetan egon behar du, jendea dagoen lekuetan. Kalejiratan jendea ez da hainbeste etortzen.

Inauteri Jaia

Otsailak 8 ostirala

10:00 LH-koen desfilea, "Mar-txa" dantzatzuz.

11:15 Udarregi Ikastolako HH, LH eta DBHko ikasleen ikuskizuna Oiardo Kiroldegian. Antolatzailea: Udarregi Ikastola.

Otsailak 9 larunbata

12:30 Zumartxan, kalejira.

14:00 Bazkaria Olarrondo jate-txean. Txartelak salgai: 18 euro. NOAUA!n, Irratin eta Txiribogan.

17:00 Erraldioen kalejira dultzaineroekin, Usurbilgo Gaztetxetik abiatuta.

19:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira.

Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkartea, Usurbilgo Gaztetxea, Erraldioen Konpartsa.

Gaztelekuan

16:00 Prix Handia lehiaketa DBH 1eko gazteentzat: musika, jolasak, frogak eta apustuekin!

17:30 Dantzaldia denentzat.

“Mozorrotu eta animatu daitezela eguerdian, gurekin ondo pasatzera”

Aurtengo inauteriak egunez ospatzeko apustua egin da. Urtero moduan ordea, zuekin hasiko da jaialdia. Zer esan herriarrei?

A. E. Gu jotzen egongo garela eta dantza egiteko.

A. M. Mozorrotu eta animatu daitezela eguerdian kalera, gurekin ondo pasatzera, giroa egongo da eta.

Zer ibilbide osatuko duzue?

A. E. Ez dugu hitz egin, baina betiko ibilbidea izango da. Zumartetik Kale Nagusira eta handik errotondora eta frontoi ingurura joango gara.

Zer da entzungo dutena?

A. M. Kanta berriak sartzen, errepertorioa osatzen joan gara. Normalean txaranga guztiek jotzen dituzten kantak ditugu. Baina izango dira baita, Tolosako inauterietarako lantzen diren kantak.

A. E. Kaldereroen beste kanta batzuk ere jo genituen.

“ESPERIENTZIA ONA ETA ABERASGARRIA”

Aurten mozorrotzeko gaia musika izango da. Txarangako kide izanda, musikariz mozorrotuko zarete?

A. M. Gure artean ez dugu hitz egin oraindik, baina nik uste gaia musika izanik, musikariz edo musikarekin erlazionatua dagoen mozorro batekin joango garela jantzita.

Inauteriez gain, aurrera begira saio gehiago lotuak dituzue?

A. E. Usurbilgo festetan, eta Sagardo Egunean urtero egiten ditugunak.

A. M. Aurten ikasketekin arazoak izan ditugu, jada ez baikara biltzen entseatzeko. Horregatik, aurten betiko



Zumartxan txarangako kideak, iazko Inauteri Jaian.

saio finkoak mantentzea erabaki dugu eta ahal dugun moduan jotzen ahaleginduko garela. Eta gero ikusiko da.

A. E. Entseguetarako astean behin biltzen ginen lehen, baina orain ezin dugu bildu ikasketak direla eta.

Zumarteko ikasle gazteek ere izan dezakete noski lekua Zumartxanen biharko egunean?

A. E. Azken urte honetan ikasle berriak izan dira gainera, entseguetara etorri ezin izan duten arren, behin edo behin atera izan dira.

A. M. Pixkanaka sartzen joan dira, taldea berritzen. Guk ere beti ezin dugu jo

eta. Ikasketekin denbora gehiago behar dugu eta gazteak sartuko dira laster.

Txarangako partaide izateak zer suposatu dizue?

A. E. Zerbait desberdina da. Baxua jotzen egotetik txarangan jotzera pasa nintzen. Oso giro desberdina da, kontzertu bat eskaintzea Suteigiko auditorioan edo kaleretik ibiltzea Sagardo Egunean.

A. M. Nik klarinetea jotzen dut. Esperientzia desberdina da. Oso ona eta aberasgarria.

“Zumartetik Kale Nagusira eta handik errotondora eta frontoi ingurura joango gara”

Zumartxan txaranga zer instrumentuz osatua dago?

A. E. Saxofoniak, tronpeta, klarinetea, tronboia, bonbardinoia, kaxa, bonboa eta txapak.

Kanpora beste norabait iritsi nahi zenukete?

A. E. Orain egiten ari garenaekin, urtean hiru aldiz jotzen arituta, nahikoa da. Ondoko dago, ez gara iristen gehiagora.

A. M. Jendea taldean sartze- ra animatzen bada, berriz ere leku desberdinetan jo dezakete.

Udarregikoak, Inauteri giroan murgiltzen lehenak

Sarrerak bazkarirako

Otsailaren 6a zen Inauteri Festako bazkaritarako sarrerak erosteko azken eguna. Txartelak 18 eurotan ziren salgai NOAUA!n, Irratin eta Txiribogan. Otordua Olarrondo jatetxean ospatuko da, larunbatean, 14:00etan. Mozorrotuta joatea, ezinbestekoa.

Bezperan, ikasleen txanda

HH-koak zakuekin, LHkoak zirko ikuskizunarekin, eta DBHkoak film eta zinegile bihurtuta. **Ostiral honetan** eskainiko dute urteroko ikuskizuna, 11:00etatik aurrera Kiroldegian.

Aurretik, LHkoek Kaxko ingurutik desfilatuko dute.

Gaztelekua ere larunbatean Inauteri giroan

Euren inauteri festa antolatu du baita Gaztelekua, larunbat honetarako, otsailaren 9rako. 16:00etan hasita, lehenik Prix Handia lehiaketa ospatuko dute, hainbat jokorekin. Eta jarraian, dantzaldia antolatu dute.

Euripean, kantari

Santa Ageda bezpera, pasa den astelehena, euripean eta kantu ho- tsekin joan zitzaigun.

Lehenbizi, Udarregi Ikastolako ikasleak irten ziren kalera. Bazkalostean, Haur Hezkuntza, Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoak eskean ibili ziren. Besteak beste, DBH 4ko ikasleek ikasturte amaieran egin asmo duten bidaiarako laguntza biltzen. Frontoian burutu zen azken ekitaldia. Aterpean, eurria noiznahi ari zuen eta. Gerrogo, 18:30etarako beste bi hitzordu deituak zituen; bat Zubieta Lantzenek Zubietan bertan, eta Bota Punttubakoek eta Kantu Taldekoek Mikel Laboa plazan. Atertzen ez zue- nez, Kaxkoko kantu zaleak etxe azpian babestuta aurkitu genituen. Otsailaren 4an abes- tera irtendako gainerako guz- tiak bezala, makilak eta kantu liburuxkak eskuetan eta egoki jantzita. Bordatxo taberna pa- rean hasi zuten erronda. Kopla zaharrak abestuz, gozatu zu- ten astelehen iluntzeko giro goibela.



Udarregiko ikasle gazteenak frontoian aritu ziren kantuan.



Kantu Taldekoak eta Bota Punttubakoak iluntzean irten ziren kantari.

Mendizorrotzen, Igeldoko igeltxoaren bizilekuak ezagutzen

Mendizorrotzeko hezeguneak: Igeldoko igeltxoaren bizilekuak eza- gutuz". Izenburu hori zuen Cristina Enea fundazioak au- rreko igandean antolatu zuen irteerak. Igeldoko igelaz eta Mendizorrotzeko putzuetaz aritu zen Xabier Rubio aditua. Mendizorrotzekoak hezegune txikiak izanik ere, biodibertsitate gordailuak dira. Ibilaldi honen bidez hain zuzen, pu- tzu horien garrantziaren berri eman zuen. Haritzalde Natur-



Argazkian, irteeran parte hartu zutenak eta Xabier Rubio aditua.

zaleen Elkarte eta Aranzadi Zientzia Elkartarekin elkarla-

nean antolatu zen igandeko zeharkaldia.

Ingelesko mintza praktika EPA Lasarte HHI-n

Ingelesko mintza praktika saio- ak egingo dira otsailetik ekai- nera bitartean. Astearte eta ostegunetan lehen taldea: 17:00-18:00. Bigarren taldea: 18:00-19:00. Informazio gehia- go: 943 37 64 43 edo 943 36 66 08. 18 urtetik gorako edo- zeinek eman dezake izena.

Bide gorrien inguruko bilera

Ostegun honetan, otsailaren 7an Usurbilgo bizikleta plane- an sakondu eta Kaxkoko bide- gorri sarea definitzeko bilera antolatu du Usurbilgo Udalak, iluntzeko 19:00etan Potxoene- an.

Hitzordua udalerrian bizikle- ta sustatu nahi duen herritar orori zuzendua dago. Ibon Goi- koetxea udal ingurumen tekni- kariak eta Ander Irazusta Bizi- ker enpresako mugikortasun aholkulariak parte hartuko dute.

Kutsaduraren aurka, elkarretaratuta

"UCINek gure osasunarekin jolasten du" lemapean kutsadu- raren aurka elkarretaratu zen herritar talde bat, joan den osti- ralean. Eguraldi txarragatik, Ita- ya Gazte Asanbladak deituriko mobilizazioa Mikel Laboa pla- zan ez, frontoian burutu zen. Otsailaren 1ekoa, irailaz geroz- tik antolatzen duten seigarren elkarretaratzea izan zen.



Frontoian egin zuten elkarretaratzea.

Atez atekoaren alde

Atez ateko bilketa indarrean duten udalerrietako lagun ugari bildu ziren larunbatean Hernanin, sistema honen alde egiteko. Atez atekoaren inguruan esaten ari diren gezurrak salatu eta beste behin Gipuzkoa zero zabor lurralde izatearen aldeko apustu garbia egin zuten.



Atez atekoaren inguruko "gezur erauntsia" salatu zuten (argazkia: Kronika).

"Gezur guztien gainetik atez atekoa sistema eraginkor eta justua izateaz gain, sistema eroso, garbi eta merkea ere badela, eta herri guztiak bide horretatik joanez gero, erraustegi eta zabortegi toxikorik gabeko Gipuzkoa edukitzea lortuko dugula, Gipuzkoa Zero Zabor lurralde izatea lortuko dugula", adierazi nahi izan zuten larunbateko agerraldian.

Usurbildarrak, hernaniarrak, oiartzuarrak eta antzuo-

larrak bildu zituen hitzorduan, atez atekoa jasaten ari den "gezur erauntsia" salatu zuten. Bai garai batean, udalerriok bilketa sistema honen "aldeko apustua egin zutenean", baita orain ere atez atekoa jarri asmo dagoen beste udalerrietan gertatzen ari den moduan.

Gogorarazten dutenez, "atez atekoa ezagutzeko pribilegioa daukagunok, badakigu gauzak oso bestelakoak direla, bizi-

modu erabat normala egiten segitzen dugula, diferentzia nabarmen batekin: gure herrietan hondakinak zabor izateari utzi eta baliabide bihurtu dira. Ondorioz, zabortegiak dituzten herrietara lehen baino askoz ere zabor gutxiago bidaltzen dugula ikusten dugu, inork nahi ez dituen instalazio horiek hartzen dituzten herrietako biztanleekin daukagun zorra ahal dugun neurrian kitatuz".

Kontratazioetan euskara bermatzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako 36 udalek, Usurbilgoak tartean, administrazio kontratuetan hizkuntza irizpideak modu bateratuan aplikatuko dituzte. Orain, modu bateratuan adostutako protokoloen bidez, erakundeen lana eraginkorragoa izango da. Udal-ekin egitasmoaren bidez adostu dituzte irizpideak, erakunde guztiok. Hizkuntza irizpideek obra kontratuei, herri-

lanen emakidei, zerbitzu kontratuei, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuei eta hornidura kontratuei eragingo diete. Administrazioarekin eta herri-tarrekin izan beharreko erabilerara arautzeaz gain, hizkuntza paisaia eta gaitasuna ere neurtu dira. Beraz, Gipuzkoako 36 udalen eta Aldundiaren kontratazio publikoetan, enpresek hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte aurrerantzean. Euskara sustatzeko ekimen be-



36 udaletako eta Foru Aldundiko arduradunak, egitasmoa aurkezten.

rri honen bueltan batu dira Gipuzkoako 36 udal, Gipuzkoako Foru Aldundia, UEMA eta Urola Kosta Mankomunitatea.

Ustezko irregulartasunak Kontsoltzioan

Aurreko legealdia amaitzeaz zela, Gipuzkoako Hondakin Kontsoltzioko presidente Carlos Ormazabalak swap ize-neko produktu finantzario bat kontratatu eta ondorioz, egun hileroko 300.000 euro interesetan ordaindu behar zaizkiela Banesto eta La Caixari. Hori salatu zuten, Ormazabalen ondorengo GHK-ko lehendakari Juan Carlos Alduntzinek eta Ainhoa Intxaurrendietak lehendakari ordeak, joan den ostira-lean hedabideen aurreko agerraldian. Produktu honen kontratazioa, aurreko legealdiko agintariak bultzatu nahi zuten hondakin kudeaketa planarekin lotua legoke eta salatu zuten, Zubietako erraustegi plantaren proiektua atzerazekin bihurtzea zuten helburu. Egoera honen aurrean neurri legalak hartzeko asmoa du GHK erakundeak.

Errausketaren aurkako pegatak eskuragarri

"Errausketarik? Ez, eskerrik asko" dioten pegatak eskuratzeko aukera dago 2 eurotan, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan.



izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

OSTEOPATIA ZERBITZUA
KATXIN ALZABARREN
Osteopata D. O. Fisioterapeuta
Dial eta Tiro
HITZORDUA:
607 85 82 08
Zubiaurrenea 4, 943 361 951

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Aginagako eliza zaharra berritzen hasiko dira larunbat honetan

Aldamioa jarri dute, segurtasun neurri guztiak betetzen dituela ere egiaztatu du enpresa batek. Bertan lanean jardungo duten herritarrek ere amaitu berri dute burutu beharrekoa zuten ikastaroa. Honekin, guztia prest dute jada Aginagan. Larunbat honetan, otsailaren 9an hasiko dituzte elizako eraberritze lanak, Bidean Agiñarron Herri Elkartetik berri eman dutenez.

Auzolanean burutuko dute prozesu osoa, aipatu bilgunitik duela bi hilabete NOAUA! aldizkariari eskainiko elkarrizketan zioten moduan. "Aginagarentzat ondare historikoa, altxor bat dela iruditzen zaigu eta berri beha-



Auzolanean egingo dute berritze-lan osoa.

rra dagoela, erabilpen anitz bat emateko. Arranpa bat egiteko asmoa dago, gurgildun aulkian daudenentzat.

Bai eliza eta kanpoko arranpa auzolanean egingo dira", iragarri zuten Bidean elkartetik.

PSE-EEk dio Munalurrarako proposaturikoa onartu duela Udalak

Munalurrarako sarbidea hobetzea eskatzen du PSE-EEk izenburupean, udal talde sozialistak azaroan NOAUA!ra helarazitako prentsa oharraren berri eman genizuen. Bertan, udal-txean Munalurrarako sartu irteerak hobetzea eskatu zutela aipatzen zuen Usurbilgo PSE-EEk. Neurriak hartzea eskatzen zioten gobernu taldeari. Munalurrak hiru irteera, baina sarbide bakarra zuela gogorazten zuten. Horregatik, besteak beste, "kale baten noranzkoa" aldatzea proposatzen zuten. Neurriokin, PSE-EEren ustez, "Munalurran dabiltzan ibilgailuen sartu irtee-

rak hobetu eta sarbide zuzena izango lukete, auzunera itzultzeko Usurbilgo erdigunera joan beharrik izan gabe".

PSE-EEtik NOAUA!ra helarazi berri duten prentsa oharrak dioenez, sozialistek eginiko proposamenak aintzakotzat hartu ditu Udalak. Neurriok, bide segurtasunerako beharrezkoak direla berresten du sozialisten taldeko bozeramaile Ricardo Crespok. "Munalurrarako sarbide eta irteeratan hobekuntza izango den moduan, auzoko segurtasuna hobetuko da", adierazi du. Gai honi heltzeko unea orain dela azpimarratzen du, "Agerreazpiko urbanizazio lanak amaitu eta auzora bizilagun gehiago



Bide segurtasunerako beharrezko neurriak proposatu zituen PSE-EEk.

etortzearekin batera egoera okertuko baita".

PSE-EEren ekimen hau, auzoko hamarnaka bizilagunen sinadurek babestu eta guztiek arazo hau ahal bezain azkar konpontzea eskatzen dutela gogorazten du Crespok.

Bost urtez, kultura lantzen

Udalaren eta eragileen arteko komunikazioa sustatu edota herriko kultur taldeen partaidetza eta koordinazioa bultzatzeko berreskuratu zen (1999an sortu baitzen) 2008ko urtarrilaren 30ean, Kultura Aholku Batzordea. Bilguneak bost urte bete berri ditu.

Aurreko legegintzaldian jarri zen martxan berriz. Aipatu moduan, orain bost urte burutu zen lehen bilkura, Udaleko udalbatza aretoan. Hitzordu hartan, Udala eta eragile desberdinen ordezkari gisa, 30 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten.

Ordutik, bost urte pasa dira. Denbora tarte honetan, lanketa desberdinak burutu dituzte aipatu batzordean. Nabarmenezkoen artean, herriko talde edo elkarte desberdinek jasotzen dituzten diru-laguntzen inguruan egindako lanketa aipatu behar. Baita duela bi urte burutu zen parte hartze prozesua ere.

40 lagun inguru murgildu ziren prozesu horretan. Esku artean, besteren artean, kultur talde izatetik kultur herri izatera igarotzeko pausoa eman edota Kultura Aholku Batzordetik estrategiak markatzeko erronkak zituzten. Batzuen eta besteen ekarpenekin, prozesu amaierarako 2016. urte arteko kultur arloko Usurbilgo plan estrategikoa diseinatu zuten. Datozen urteotarako erronkak bost zutaberen inguruan bildu zituzten:

- 1-Kultura balioan jartzea.
- 2-Herritarren artean parte hartzea sustatzea.
- 3-Auzoetako giroa bultzatzea.
- 4-Autogestioa bultzatzea kultur kudeaketan.
- 5-Kultur taldeak indartzea.

Kultura Aholku Batzordeak, egun, kultur arloko web orrialde bat lantzen dihardu. Eta horrekin batera, diru-laguntzen deialdiaren gaia dute beste arreta gune nagusia.

Gipuzkoako Txapelketan ondo aritu dira Usurbil Judo Klub taldekoak

Urrezko domina gehien lortu dituen judo kluba izan zen Usurbilgoa, urtarilaren 25ean Lezoko Beko-errotako kiroldegian jokatu zen junior mailako Gipuzkoako Txapelketan. Usurbilgo klubeko zortzi judoek parte hartu zuten lehian, eta zazpi irabazi zituzten dominak. Urrezko lau, brontzezko bi eta zilarrrezko bat guztira:

JUNIORRAK

- 44 kg Paula Vicente (Urrea)
- 48 kg Naroa Sanchez (Urrea)
- 52 kg Itsasne Arruabarrena (Urrea)
- 52 kg Miriam Gonzalez (Zilarra)
- 52 kg Maider Matilla (Brontzea)
- 60 kg Nestor Laca (Brontzea)
- 73 kg Xabier Cazorla (Urrea)



Lezon jokatu zen Gipuzkoako Txapelketa. Irudian, judo taldeko kideak.

INFANTILAK

Junior mailako txapelketaren ostean, Gipuzkoako Infantilen arteko bigarren sailkapen lehia jokatu zen gero. Usurbilgo klubeko zazpi judoek parte hartu zuten. Haietatik bost

lehen hiru postuetan sailkatu ziren:

- 44 kg Mafer Carazas (1. postua)
- 48 kg Alba Vicente (1. postua)
- 42 kg Julen Alzas (2. postua)
- 42 kg Jorge Arbe (3. postua)
- + 66 kg Josu Ruiz (1. postua)

Deba-Zumaia bidea osatuko dute igandean Andatzakoek

Andatzako Mendizale Taldekoek prest dute 2013ko lehen irteera. Igande honetarako antolatuko dute. Deba-Zumaia ibilbidea osatzea proposatzen diete herritarrei. 12 kilometroko bidea osatzea, hiru ordu eta erdi inguruan. Animatezen direnak, goizeko 8:00etan jarri dute hitzordua,

tren geltokian. Asmoa, Debara trenetxe joan, gero handik Zumaia-errotako bidea oinez egin, eta handik trenetxe Usurbila bueltatzea da.

Irteeraren mapa eta gainerako zehaztasunen berri, Andatzakoek sarean duten web orrialdean aurkituko duzue: andatzamendizale.info atarian.



8:00etan hartuko dute tren.

Eskubaloia partidak

Otsailak 9, larunbata
15:30 Senior neskek:
Atez Ate Usurbil-Ereintza

Futbol partidak

Otsailak 9, larunbata
9:30 Alebin Mutilak Futbol 8:
Udarregi 5.
11:00 Kadete F-11.
Tokia: Harane.

Pilota partidak

Otsailak 7, osteguna
Aginagan, 19:00etan

UDABERRI TXAPELKETA
Eskuz binaka nagusiak 1. maila
USURBIL-REAL SOCIEDAD 2
(Gorka Mendizabal-Asier Katalina)

Otsailak 8, ostirala
Aginagan, 19:30ean

UDABERRI TXAPELKETA
Eskuz binaka alebinak
USURBIL-AZKOITIA
(Aimar Iruretagoiena-Imanol Galarra)

Paleta Goma nagusiak 2. maila
USURBIL 1-ALTZATARRA
(Xabier Errasti-Aritz Urdanpilleta)

Paleta Goma nagusiak 1. maila
USURBIL-ALTZATARRA 1
(Josu Arruti-Jon Olaizola)

Otsailak 10, igandea
Usurbilen, 11:30ean

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA
Eskuz binaka nagusiak
USURBIL-AURRERA SAIAS
(Asier Portu-Iñigo Altuna)

Infantil futbol taldekoak, lehenak

Lehen fasea amaitzean, mutilen futbol taldeak lehen postua ziurtatua du: "Txapeldunen fasea jokatzeko hasiko dira laster. Taldea egiten ari den lan onaren erakusgarri, Realaren aldetik taldekide batzuei egiten ari zaien jarraipena".

MIHEL AKADEMIA

Talde murriztuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa • Selektibitateak
- Lanbide heziketa
- Ikasketak teknikoak • Hizkuntzak

629944690

Galtzaragaña 1, behea USURBIL

ANTXETA

taberna-jatetxea

eguneko menuak ✈
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

JE JON ELORZA

IGELTSERITZA OROKORRA

Obrak eta erreformak

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebatsalgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 eurotan, orain 216.000 eurotan!!! 662 056 899

Pisua salgai Txaramunton. Berria, bi logela, egongela, terraza ikusgarria. Trastero handia. 276.000 euro. 615 720 245.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trastero eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trastero. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trastero, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Etxe bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzeara egiteko aukera. 665 720 913.

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trastero. 616064059 (gauetan deitu).

MOTORRA

salmenta,
garajeak

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Peugeot Satelis markako motoa salgai. 4.000 km. Urte eta erdi du. 627 342 464.

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro.

Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

1999. urteko Ford Mondeo familiarra salgai, 1.500 eurotan. Egoera onean. 652 706 518

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Seat Ibiza salgai. 1004 TDI. 2004. urtekoa. Oso egoera onean. 2.000 euro. 667 715 075

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Matematikako klase partikularrak ematen ditut. (Goi mailako ingeniari itza ikasketak egin ditut). Tel. 672 427 870.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten

laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzearan laguntzeko, morroi lanerako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka



Zorionak Aritz!

Otsailaren 8an 5 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



Otsailak 4an 8 urte bete dittuk, zorionak ta muxu pillo bat etxekuen partez. Aupa Mikel!!



Zorionak Ekhiñe!

Larunbatean 5 urte betetzen dituzu. Bizkotxoa zure kontu? Zorionak eta muxu handi bat familikoaren partez!



Zorionak aitona Manuel!!

Asteazkenean kriston festa, ze ondo!! Muxu eta besarkada goxuk Danel, Unax eta Lukenen partez!!!

Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari lagun-tzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldari lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan

diplomaturak. Badut esperientzia. 652712099.

Lan eskaintzak

Usurbil aldean komertzialak behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

Sukaldari bat behar dugu asteburuetan, Xarma tabernan. 943 368 771.

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. 943374330

BESTELAKOAK

Setter-spaniel nahasketako txakurra galdu da Usurbilgo kaxkoxan. Chip-a dauka eta txuri du izena. 608 60 32 52.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600244 126

Txamarra eta jertse bat galdu dira Abegalden. Udarregiraigo eta jeisteko eskailera ondoan. 660779160
Su egurra salgai. Haitza eta

Pagoa. (Etxera eramaten da). 667 232 300.

Gasze usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko frontoian. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko genioke. Tel. 639 469 577.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Hainbat produktu erabili gabeak salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurrikoak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haur jokoak, liburuak, kirol materiala, ispilauak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maleak, bizikletak... Atalluko Garbi-gunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Taxia (Angel).....	607 928 770
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Eusko Tren.....	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	LurraldeBus.....	943 000 117
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Anbulategia.....	943 362 013
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Oa botika.....	943 376 076
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Iturralde botika.....	943 363 395
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	DYA.....	943 464 622
Haur Eskola.....	943 374 061	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Emergentziak.....	112
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
KZgunea.....	943 023 684	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Popular Español.....	943 370 411
Etumeta AEK Euskaltegia.....	607 609 379	BBVA.....	943 377 155
Kaleazar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Telefonica.....	1004
Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak otsailak 7-otsailak 17

Osteguna	07	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
Ostirala	08	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata	09	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
Igandea	10	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
Astelehena	11	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42 Lasarte
Asteartea	12	GIL	Kale Nagusia 24 behe Lasarte
Asteazkena	13	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte

Osteguna	14	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Ostirala	15	GANDARIAS-URIBE	Iñigo de Loyola 9 Lasarte
Larunbata	16	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea	17	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8
(Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

Aristitxo 8, behe 943 363 348 - 609 888 021

Agenda otsaila

8 ostirala

■ **Inauteri Jaia Udarregi ikastolan.** 10:00etan LHkoen desfilea. 11:15ean HH, LH eta DBH-ko ikasleak kiroldegian.

9 larunbata

■ **Inauteri Jaia 2013.** 12:30ean Zumartxan txarangarekin kalejira. 14:00etan bazkaria Olarrondon. 17:00etan erraldoien kalejira dultzaineroekin. 19:00etan Burrunbazaleak txaranga.

10 igandea

■ **Deba-Zumaia arteko bidea.** 8:00etan abiatuko dira tren geltokitik.

Gure Pakeako txapelketak datorren astean hasiko dira

Otsailaren 12an hasiko dira Gure Pakea Elkarteko bazkideentzat antolatu dituzten mahai joko eta mugimenduko txapelketak. Ekimenean izen emateko epea ixtear da. Apuntatzeko azken eguna izango da ostiral hau, otsailaren 8a. Txapelketak otsailaren 12an, 13an, 19an eta 20an ospatuko dira.

Azken egunean, sari banaketa eta askaria iragarri ditu Gure Pakeak, bazkide parte hartzaileentzat. Jokoak arratsaldeko 16:00etatik aurrera jokatuiko dira.

Otsailak 12, asteartea: punttua.

Otsailak 13, asteazkena: tutea.



Jokoetako partidak arratsaldeko 16:00etan hasiko dira.

Otsailak 19, asteartea: musa.

Otsailak 20, asteazkena: toka eta igel jokoak. Sari banaketa eta askaria partaideentzat.

Bihurri haur ludotekaren oharra

Bertako kide egin nahi dutenek, bazkide berriek alegia, 30 euro ordaindu beharko dituzte. Jada bazkide direnek, 10 euro. Izen emate epe hau martxora arte luzatuko da. Apuntatzeko, asteazken arratsaldetan, 17:00-18:00 artean garai bateko Gure Pakea elkarteko egoitzara gerturatu beharko da.

Bidegorriei buruzko bilera

Bidegorri sarea sendotu nahi du Usurbilgo Udalak. "Horretarako ordea, lehenik eta behin bizikletari lekua egin behar zaio herriko kaleetan eta horrek hausnarketa eta plangintza bat eskatzen du". Bilera deitu dute ostegun honetarako, otsailak 7, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Potxoenean.

Datozenak

Sarkor, Tooth eta Mörghead-en kontzertua

Sarkor taldeak punkrock azkarra eta hardcore melodikoa du gustuko. Tooth taldeak, aldiz, post-hardcore estiloa jorratzen du eta eraginen artean Du, Lisabo, Helmet... aipatzen dituzte. Mörghead taldeak biko formatuan d-beat punka jorratzen du, azkarra eta narrasa. Hiru talde hauek otsailaren 16an larunbata joko dute Usurbilgo Gaztetxean, gaueko 23:00etan hasita.



Argazkian, Sarkor taldeko kide bat.

Lilatoian atera ondoren, elkarrekin bazkaltzeko proposamena

Martxoaren 3an ospatuko da Lilatoia. Herri-tarbatzuen ekimenez, bazkaria antolatu dute egun horretarako. Lasterketan atera ondoren elkartuko dira Artzabalen. Aldez aurretik eman behar da izena jatetxean bertan. Azken eguna: otsailak 28. Menua 22 eurokoa izango da. Baina izena ematerakoan 7 euro aurreratu behar dira.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatua eta fatxadak
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
• komertzial instalazioak • beira bikoitza
• segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

* **BOKATA
MENUA
8,50€**




IRATXO
Taberna



* **Menua entsalada,
bokata, edaria eta
postreaz osatua
dago.**

Tel. 943 374 330 • Bordaberri 5 • Usurbil
www.iratxodeusurbil@facebook.com

Öinutsik
podologia zentroa

- ✓ Kiropodiak
- ✓ Azterketa biomekanikoak
- ✓ Plantilak
- ✓ Papilomak
- ✓ Erreflexoterapia

Puntapax 6B, behea ezkerre
Tel. 943 11 09 54

Tapak eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2012 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2012ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzaitezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2012



474-514 zenbakiak

TXOTX

!!!

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 5era
TXOTX GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baseria **Ereñotzu - Hemani**
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



SAIZAR
Betiko Sagardoa




Kalezar Auzoa, 39 • **USURBIL** • Tel. 943 37 39 95
www.sidrassaizar.com

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!



%100 bertako sagarra

AIALDE BERRI

Tel: 943 365 031

Santuenea

 **SAGARDOTEGIA**
aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
TXOTXETIK!




Tfn-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com